



EBAZPENA, 2020KO EKAINAREN 22KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ, EBAZTEN DA 2020/2021 IKASTURTERAKO ZERBITZU-EGINKIZUNAK BAIMENTZEA HAUTETSIA IZATEAGATIK; HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2020KO MARTXOAREN 5EKO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOA.

185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko denak, bere 12. Artikuluan ondorengoa dio:

"Irakaskuntzako arrazoiak edo norbere osasun-arazo larriak direla-eta, karrerako funtzionarioek berez dagokiena ez den beste ikastetxe batean lan egin ahal izango dute.

"Zerbitzu-eginkizunak ikasturte osorako izango dira eta interesdunak ezingo die horiei uko egin. Urtero, ikasturtean ikasturteko zerbitzu-eginkizunen deialdiak egingo dira Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez"

79/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, bere 10 k) artikuluan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren eskumena zerbitzu-eginkizunak ematea dela ezartzen da.

2020eko martxoaren 5eko ebazpenaren bidez, hautetsia izateagatik egindako deialdia argitaratu zen.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, bere 54. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Horiek horrela, behin eskaerak azterturta, apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak ezartzen duen eskumenaz baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenena.- Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren ebazpena, 2020/2021 ikasturterako zerbitzu-eginkizunak baimentzea ebazten duena argitaratzea. Deialdia 2020ko martxoaren 5eko ebazpenaren bitartez egin zen.

Bigarrena.- Ebazpen honen I. Eranskin argitaratzea, Eranskin horretan ageri dira 2020/2021 ikasturterako baimendutako zerbitzu-eginkizunak.

Hirugarrena.- Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, lanpostua aukeratzera.

Hori guztia, deialdiaren zortzigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.

Laugarrena.- Argitarapena <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> webgunean egingo da.

ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 22a.

Jon Agirre Huerga
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

I ERANSKINA

LURRALDEA / TERRITORIO	ABIZENAK / APELLIDOS	IZENA / NOMBRE
BIZKAIA	ABERASTURI ARRUPE	MIREN OLATZ
BIZKAIA	ARTETXE ORNES	ALAITZ
BIZKAIA	ATXURRA ARANGUREN	ARANTZA
BIZKAIA	ESPARZA AREITIOBIRITXINAGA	GAIZKA
BIZKAIA	GABIOLA IDOIAGABEITIA	IBON
GIPUZKOA	IBARGUREN LAZKANO	ADUR
BIZKAIA	ITURBE IZAGIRRE	HARITZA
BIZKAIA	JAUREGI BEDIAGA	JORGE
GIPUZKOA	LATABURU ORTIZ	NOELIA
BIZKAIA	LEJARRAGA EMBEITIA	JON
BIZKAIA	LEZAMIZ BELARRINAGA	IÑIGO
BIZKAIA	MAGUNAGOIKOETXEA AGIRRE	IÑIGO
BIZKAIA	MARKUERKIAGA OLABE	LEIRE
ARABA	PAGOAGA ZALOÑA	IRATI
BIZKAIA	PEREZ BARRIO	IDOIA
ARABA	PEREZ GOMEZ	MAITANE
BIZKAIA	SAENZ DE BURUAGA	GARBIÑE
BIZKAIA	SAN MIGUEL ALKORTA	MADDI
BIZKAIA	SAN ROMAN AIARTZA	ITXASO
BIZKAIA	URIARTE PUJANA	ANDER
BIZKAIA	ZAMEZA GONZALEZ	ARGI
BIZKAIA	ZUBIZARRETA MALAXETXEBARRIA	AINARA